

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak funtzionarioentzako 3 edo 6 hilabeteko baimenak eta lanaldi partzialeko kontratuak onetsi ditu

Bi neurriak ekainean jarriko dira indarrean, eta helburua Foru Administrazioako lanaren banaketa sustatzea da.

Miércoles, 21 de mayo de 2014

Nafarroako Gobernuak Administrazioan [lana banatzea](#) sustatzea helburu duten neurrietatik bi onetsi ditu. Funtzionarioentzako 3 edo 6 hilabeteko baimenak ematea eta administrazio nagusian lanaldi partzialeko kontratuak egiteko aukera ezartzea dira onetsi diren bi neurriak. Azken aukera hori ematen da dagoeneko osasunaren eta hezkuntzaren alorrean.



Administrazioako bulego batzuen irudia.

Aldi baterako baimenei dagokienez, iazko urtearen amaieran Nafarroako administrazio publikoen negoziazio-mahai nagusian onetsi zen erabakia da, eta Foru Komunitateko langabezia-tasa % 10 baino txikiagoa den arte egongo da indarrean. Bi baimen mota ezarriko dira, soldatarik kobratu gabe zein soldataren zati bat ordainduta, eta helburua baimenak baliatzen dituzten langileak ordezkatzeko aldi baterako kontratuak egitea izango da.

Araua NAO n argitaratu ondoren eskatu ahal izango dira; aurreikusituz, maiatza amaitu aurretik egin ahal izango dira eskaerak. Foru Administrazioaren kasuan, dagokion zuzendaritza nagusiak izapidetuko ditu baimenak eta, kontratazioaren alorrean eskumena duen organoarekin koordinazioan jardunda, baimenak ere emango ditu.

Nafarroako administrazio publiko guztiei eragiten die neurriak, beraz, baita tokiko erakundeei ere, nahiz eta aplikatzea aukerakoa izan, udal-autonomiaren konstituzio-printzipioari jarraiki.

Baimena soldatarik gabe

Foru-dekretuak araututakoaren arabera, soldatarik gabeko baimena hiru edo sei hilabetekoa izango da, ematen denetik zenbatzen hasita. Funtzionarioek eta estatutupeko langileek lortu ahal izango dute baimena, baita plaza huts bat edo erreserbatutako plaza batean eta administrazio-kontratua duen langileek ere, baldin eta zerbitzu-harremana gutxienez urtebetekoa bada. Lagileak 12 hilabeteetan ordainsari finkoen % 75 jasoko

du erregulariki baimena hiru hilabetekoa bada, eta % 50 jasoko baimena urte erdikoa bada.

Gizarte-segurantzako kotizazioak bere horretan geratuko dira, eta baimena baliatzeko aldia jarraitua izango da eta langilearen eta zuzendaritzaren artean adostuko da. Hala ere, irakasle edo laguntzaile gisa ikastetxeetan zerbitzuak eskaintzen dituzten langileek sei hilabeteko baimena bakarrik lortu ahal izango dute, eta otsailtik uztaileira edo abuztutik urtarrilerako aldietan bakarrik.

Aukera horrekin ezingo da ez oporrik ez norberaren gauzetarako baimenik izan. Arrazoia edozein dela ere langileak ez badu zerbitzu-egoera urte oso batez mantentzen, erregularizazio egokia egingo da.

Baimena soldataren zati bat ordainduta

Bestalde, soldataren zati bat ordainduta duen baimena 6 hilabetekoa izango da, ematen denetik ondorengo 30 hilabeteko aldiari baliatu beharko direnak. Horietatik 24 lanaldi osoak izango dira eta gainerako 6 hilabeteean baimena baliatu ahal izango da. Funtzionarioek eta estatutupeko langileek eskatu ahal izango dute.

Langileak ordainsarien % 84 jasoko du denboraldi osoan, aldagaiak kenduta. Horrek esan nahi du proportzionalki dagokien ordainsaria (% 80) baino % 4 gehiago dela, baina kontuan izan gizarte-segurantzako kotizazioak dagokien neurrian murriztuko direla.

Baimena baliatzeko aldia jarraitua izango da eta langilearen eta zuzendaritzaren artean adostu beharko da, ikastetxeetan irakasle edo laguntzaile gisa zerbitzuak eskaintzen dituzten langileen kasuan izan ezik. Horien baimena otsailtik uztaileira edo abuztutik urtarrilerako baliatu ahal izango da.

Aukera horrekin ere ezingo da ez oporrik ez norberaren gauzetarako baimenik izan. Arrazoia edozein dela ere langileak ez badu zerbitzu-egoera urte oso batez mantentzen, erregularizazio egokia egingo da.

Bi kasuetan, baimenak berriro ahal izango dira langileak eskatuz gero eta eskatzen diren baldintzak beteta. Hala ere, baimen kopurua mugatu ahal izango da aurrekontuaren eta zerbitzuen antolaketaren arabera. Neurri hori aplikatzeak langileen gastua txikitzen badu, aldea premia dagoen lanpostu edo arloetan aldi baterako kontratazioak egiteko erabiliko da.

Lanaldi partziala kontratazio berrietan

Onetsi den bigarren foru-dekretuaren helburua lanaldi partzialeko langile berrien kontratazioak baimentzea da. Aukera hori lanaldi-laburtua dutenak ordezkatzeko edo lanaldi partzialeko lanpostu hutsak aldi batez betetzeko erabili izan da. Hemendik aurrera, edozein motako kontratazioetarako erabili ahal izango da, lanaldi hori, zerbitzua edo antolaketa dela-eta, egokiena dela uste denean edo enplegua banatzeko neurri gisa.

Lanaldi partziala lehenago ere aplikatu izan da Osasunbiden eta hezkuntzan. Osasunaren alorrean, foru-dekretuak dio lanaldi osorako, lanaldi partzialerako edo arreta jarraiturako langileak kontratatu ahal izango direla.

Bestalde, Hezkuntza Departamentuak lanaldi partzialeko langileak kontratatu ahal izango ditu, ikastetxeen antolaketa-araubidearen ondorioz langile finkoek egin ezin ditzaketen lanak egiteko inor ez dagoenean eta lanaldi partzialeko langileak kontratatzea nahikoa denean.